


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Boletín 1. Buletina

Año 2019. Urtea

**Genero Sozialazioa eta Eskola Testuingurua:
Hobekuntzarako gakoak**

/

**Socialización de Género y Contexto Escolar:
Claves para la mejora**



ISSN: 2952-1254



gandere

Lehen buletin honetan "Genero Sozializazioa eta Eskola Testuingurua: Hobekuntzarako Gakoak" izeneko Jardunaldia aurkezten da. Jardunaldia Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) [Berdintasunerako Zuzendaritzak](#) diruz lagundu du eta UPV/EHUko GANDERE Ikerketa Taldeak antolatu du Donostiako Carlos Santamaria Zentroko auditorioan.

GANDERE Taldeak, lagungarriak izan daitezkeen baliabide eta ikerketak identifikatu, sustatu eta hedatu nahi ditu hezkuntza testuinguru desberdinetan: eskolan, familian, mediatikoan eta sozialean.

GANDEREren webgunean Jardunaldi osoa ikus daiteke: <https://www.gandere.eus/eu/contexto/jardunaldia-genero-sozializazioa-eta-eskola-testuingurua-hobekuntzarako-gakoak>

Ondoren, hitzaldien laburpen bat aurkezten da, generoaren eta hezkuntzaren arloko egungo ikerketak aurkezteko, eskola testuinguruan hezkuntzako esku-hartzea hobetzeko hausnarketak biltzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan egiten diren esperientziak partekatzeko helburuarekin.

En este primer boletín se presenta la Jornada titulada "Socialización de Género y Contexto Escolar: Claves para la mejora". La Jornada ha sido subvencionada por la [Dirección para la Igualdad](#) de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU) y organizada por el Grupo de Investigación GANDERE de la UPV/EHU en el auditorio del Centro Carlos Santamaría de Donostia-San Sebastián.

El Grupo GANDERE pretende identificar, promover y difundir recursos e investigaciones de apoyo en los diferentes contextos educativos: escolar, familiar, mediático y social.

En la web de GANDERE se puede ver la Jornada completa: <https://www.gandere.eus/contexto/jornada-socializacion-de-genero-y-contexto-escolar-claves-para-la-mejora>

A continuación, se presenta una síntesis de las ponencias con el objetivo de presentar investigaciones actuales en materia de género y educación, así como recoger reflexiones para la mejora de la intervención educativa en el contexto escolar y compartir experiencias que se llevan a cabo en centros educativos de Educación Primaria y Secundaria de la Comunidad Autónoma Vasca.

Autoretza / Autoría:
*Isabel Bartau-Rojas;
Ana Aierbe-Barandiaran;
Verónica Azpillaga-Larrea;
Uxue Zalbide-Beobide.*

Azala / Portada:
*Cross, H. (1905-1908). Paisaje con Estrellas
[acuarela sobre papel liso blanco]. Nueva
York: Museo Metropolitano de Arte (MET).*

ISSN: 2952-1254

GANDERE Ikerketa Taldeak Donostian argitaratutako buletina. Informazio gehiagorako:

Boletín editado en Donostia-San Sebastián por el Grupo de Investigación GANDERE. Para más información:

gandere@ehu.eus
www.ehu.eus/gandere
www.gandere.eus



Ikastetxeak generoz zeharkatuta

Trinidad Donoso Vázquez Bartzelonako Unibertsitateko Hezkuntzarako Ikerkuntza eta Diagnosi Metodoen sailean irakasle titularra da. Berdintasunarekin lotutako gaietarako, Errektorearen ordezkaria izan zen 2014tik 2016ra. Generoari buruzko bere ikerketa lanak 90 hamarkadan hasten dira, lanbide orientazio ez sexista lantzen zuenean. Bere lanbide ibilbideak unibertsitateko emakumeak eta lan-merkatuarekin lotutako gaiekin jarraitzen du, Bartzelonara migratu zuten emakumeen beharrez, genero indarkeria pairatu duten emakumeengan esku-hartzea, generoaren ikuspuntuaren sarrera Unibertsitatean, besteak beste. Euren bikoteengandik tratatu txarrak jasotako emakumeentzako programa psikosozialak sortu ditu. Bere azken proiektuen artean indarkeria matxista jaso duten emakume eta seme alabei osoko arreta, eta genero indarkeriei buruzko ikerketak 2.0 daude. Gainera, Ángeles Rebollo Catalánek eta Luisa Vega Carorekin honako liburuak argitaratu ditu oraintsu: [“La Universidad en clave de género”](#) eta [“Violencias de género en entornos virtuales”](#) Octaedro argitaletxean.



Lehenengo hitzaldian, Trinidad Donoso Vázquez-ek (Bartzelonako Unibertsitatea) eskola genero ikuspegitik eraldatzeko garrantzia argudiatu zuen, zeren “generoz hesituta gaude, jaio aurretik jartzen diguten armadura bat da eta ez digu uzten hesi horretatik at mugitzen”.

Genero klabeetan gauzatzen den eskolak honako elementuak uztartzen ditu:

Los centros educativos atravesados por el género

Trinidad Donoso Vázquez es Profesora titular del Departamento de Métodos de Investigación y Diagnóstico en Educación de la Universidad de Barcelona. Fue delegada del Rector para temas de igualdad del 2014 al 2016. Sus investigaciones sobre estudios de género se remontan a la década de los 90 cuando trabajaba en la orientación profesional no sexista. Continúa su trayectoria en temas de género con investigaciones sobre las mujeres universitarias y el mercado laboral, las necesidades de las mujeres migradas en Barcelona, la intervención en mujeres que han sufrido violencia machista y la introducción de la perspectiva de género en la universidad, entre otras. Ha elaborado varios programas psicosociales de atención a mujeres maltratadas por sus parejas. Entre sus últimos proyectos se ha centrado en temas como la coordinación de una atención integral a mujeres e hijos e hijas víctimas de violencia de género y las investigaciones sobre violencias de género 2.0. Cabe destacar que es autora y coordinadora junto con Ángeles Rebollo Catalán y Luisa Vega Caro de recientes publicaciones como [“La Universidad en clave de género”](#) y [“Violencias de género en entornos virtuales”](#) en la editorial Octaedro.

En la primera ponencia Trinidad Donoso Vázquez (Universidad de Barcelona) justificó la importancia de transformar la escuela desde la perspectiva de género porque “estamos blindados por el género; es una armadura que nos ponen, mucho antes de nacer y nos impide movernos fuera de ella”.

La escuela en clave de género según la ponente comprende los siguientes elementos:



1. generoaren hesietatik at, neska eta mutilen garapen osoa sustatuko duen esku-hartze intentzizkoa.
2. desberdintasunen errekonozimendutik genero estereotipoak eraldatu nahi dituen, ordena patriarkalarekin, eskolako curriculumak eta egungo zientziak beraiengan dakarren androzentrismoarekiko kritikoa dena (García-Gracia & Donoso, 2016).
3. generoek ezartzen dituzten mugak gainditzea suposatzen du eta tradizioz, femininotzat eta maskulinotzat hartzen diren jarrera eta baloreak elkarrekin existitzea, edozein izanda ere pertsonaren sexua onartuak eta lortuak izan daitezkeelarik.
4. bizitzako bi eremuak barne hartu beharko lituzke (pribatua eta publikoa) kulturako oinarriko ezagutzak jabetuaz, ekonomiako eta etxeko administrazioako ezagutza teorikoak eta praktikoak landuaz, beraien osotasuna ahalbidetuko duen hezkuntza afektibo sexuala bideratuz eta onartuz eta ordainduta egongo den lanbide bat lortzen lagunduz. (Peraza & Carreras, 2011).

- 1) un proceso intencionado de intervención que fomenta el desarrollo integral de los niños y las niñas, sin las barreras del género.
- 2) persigue transformar los estereotipos de género desde el reconocimiento de las diferencias, desde una perspectiva crítica con el orden patriarcal y el androcentrismo subyacentes al currículum escolar y al conocimiento científico (García-Gracia & Donoso, 2016).
- 3) supone la superación de los límites que imponen los géneros y la coexistencia de actitudes y valores tradicionalmente considerados masculinos con aquellos considerados femeninos, de tal manera que puedan ser aceptados y alcanzados por personas de cualquier sexo.
- 4) debería comprender los dos ámbitos de la vida (el privado y el público), adquiriendo los conocimientos culturales básicos, trabajando los conocimientos teóricos y prácticos de la economía y administración doméstica, fomentar una educación sexual y emocional que procure su plenitud y que posibilite una profesión reconocida y remunerada (Peraza & Carreras, 2011).



Horrelako eskola batetarantz eraldaketak ikastetxearen funtzionamenduaren prozeduran hainbat aldaketa sartzea suposatzen du (irakaskuntza metodologia, eskola antolakuntza, curriculum eta testuliburuak, hizkuntza eta espazio formalak eta ez formalak, curriculum izkutua), parte hartzen duten agenteen ekimena (irakasleria, ikasletoa eta familiak) eta maila desberdinetan, pentsaeretan (eskudantziak, sinesmenak, baloreak eta generoei buruzko estereotipoak), diskurtsoan (hizkuntza eta komunikazioa, diskurtsoko kodeak, sinboloak eta metaforak) eta jokatzeko moduetan (egitekoak, pertsonen gauzatzen dituzten rolak, identitate sexualak errespetatu, espazioen erabilerak).

Gaur egungo erronka ez da bakarrik eskolen eraldaketa lortzea generoaren ikuspuntutik, baizik eta baita ere zaintzaren etika aintzat hartzea, bai neskek eta bai mutilak norbere burua zaintzen ikastea, besteak zaintzen ikastea eta ingurua zaintzen ikastea.



La transformación hacia este tipo de escuela implica introducir cambios en diversos procesos del funcionamiento del centro (metodología docente, organización escolar, currículum y libros de textos, lenguaje y espacios formales e informales, currículum oculto), por parte de los diversos agentes implicados (profesorado, alumnado y familias). Así mismo estos cambios tienen que dirigirse a distintos niveles, a la forma de pensar (atribuciones, creencias, valores y estereotipos sobre el género), al discurso (lenguaje y comunicación, códigos del discurso, símbolos y metáforas) y a la forma de actuar (tareas y roles que desempeñan las personas, qué se hace para admitir y respetar la identidad de género, currículum, normas, educación afectivo-sexual, uso del espacio).

El reto en la actualidad no es sólo conseguir la transformación del centro escolar desde la perspectiva de género sino también incorporar la ética del cuidado, enseñar a las niñas y a los niños el autocuidado, el cuidado de los demás y del entorno.

[*Ver VIDEO](#)

Genero-berdintasuna Lehen Hezkuntzan eta DBH-n Euskadin

Araceli Angulo Vargas Haur eta Lehen Hezkuntzako irakaslea izan da 1981etik, eta aholkularia, PT eta ikastetxeko zuzendaria bere bitzita profesionaleko hainbat unetan. 7 urtez aritu zen Orientazioko aholkulari gisa Barakaldoko Pedagogi Orientazioko Zentroan. Bartzelonan egin zuen Hezkidetzako lehen Graduondokoa, eta Barakaldo inguruko irakasleentzako hezkidetzako lehen mintegietako bat koordinatu zuen zenbait urtez. 2007tik, ISEI-IVEIko (Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea) Psikopedagogia Taldeko koordinatzailea da, eta, aldi berean, erakunde horretako Berdintasun-Teknikaria. "[Genero-berdintasuna Lehen Hezkuntzan eta DBH-n Euskadin](#)" liburuen egileetako bat da.



Araceli Angulo Vargas-ek ([Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea, ISEI-IVEI](#)) ikuspegi zabal bat eskaini zigun Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) eskolen genero berdintasunaren inguruan.

Hitzaldiaren lehen atalean, generoaren berdintasunaren eta hezkuntzaren adierazle batzuen berrikusketan egin zuen, eta emaitzetan mutil eta nesken arteko desberdintasunak adierazten zituen. Orokorrean, errendimenduari dagokionez, neskek emaitza hobek ateratzen dituzte eta era berean, eskola-uzte eta erreplikapen tasa txikiagoak agertzen dituzte. Datu hauek, beste hamarkada batzuekin konparatuz, berdintasunaren arloan hobekuntza gertatu dela adierazten dute, nahiz eta oraindik ibilbide luzea daukagun zain.

La igualdad de género en la Educación Primaria y ESO en el País Vasco

Araceli Angulo Vargas ha sido profesora de Educación Infantil y Primaria desde 1981 y consultora, PT y directora de centro en distintos momentos de su vida profesional. Trabajó durante 7 años como asesora de Orientación en el Centro de Orientación Pedagógica de Barakaldo. Realizó en Barcelona el primer Postgrado en Coeducación y coordinó durante varios años uno de los primeros seminarios de Coeducación para el profesorado de la zona de Barakaldo. Desde el 2007 está de Coordinadora del Equipo de Psicopedagogía del ISEI-IVEI (Instituto Vasco de Evaluación e Investigación Educativa) y es, a su vez, la Técnico de Igualdad de dicha institución. Es coautora del libro "[La igualdad de género en la Educación Primaria y ESO en el País Vasco](#)".

Araceli Angulo Vargas ([Instituto Vasco de Evaluación e Investigación Educativa, ISEI-IVEI](#)) ofreció una panorámica amplia acerca de la igualdad de género en los centros educativos de la Comunidad Autónoma Vasca (CAV).

En la primera parte de la ponencia presentó algunos indicadores de la igualdad de género y educativos, y en los resultados comentó las diferencias entre chicos y chicas. En general, con respecto al rendimiento, las chicas obtienen mejores resultados y, al mismo tiempo, tienen menores tasas de abandono y de repetición que los chicos. Estos datos, comparados con otras décadas, indican que se ha producido una mejora en materia de igualdad, aunque todavía nos espera una larga trayectoria.

Nahiz eta eskola bakar bat ere ez dagoen gure kultura patriarkaletik salbuetsita, zorionez, apurka-apurka, hori aldatzen ari da eta eskolak geratzeko etorri diren balio berriez blaitzen ari dira.

Bigarren atalean, [Hezkuntza-sisteman hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana](#)-ren (2013-2017) emaitza nagusiak aurkeztu zituen.

Lehen plan horrek bost erronka nagusi planteatzen zituen:

1. hezkidetzeta-eskolaren ereduan sakontzea eta genero-ikuspegia planteamendu integral batetik sartzea;
2. ikasleak orientatzea beren bizitza-ibilbide akademikoa eta profesionala askatasunez eta genero-baldintzarik gabe aukeratzera;
3. genero-ikuspegia txertatzea eta eskola-porrotari heltzea eta hezkuntza-sistamarako sarbidea unibertsala izatea bermatzea;
4. sexu-harreman osasuntsuetarako eta sexu-aniztasunean eta emakumeen eta gizonen berdintasunean oinarritutako bizikidetzarako hezteak; eta,
5. genero-indarkeria prebenitzea.

Aldi horretan, I. Hezkidetzeta-Planean parte hartu zuten proiektu espezifikoak zuten 200 eskolak eta, horien artean, proiektu integralak zituzten 10ek. Eskoletako zuzendaritza-taldeek arabera, irakasleek sexismoa detektatzeari eta genero-indarkeria prebenitzeari buruzko prestakuntza jaso zuten, eta, neurri txikiagoan, sexu-aniztasunari buruzkoa.

Si bien “ninguna escuela está exenta de la cultura patriarcal que tenemos”, por suerte, poco a poco, esto va cambiando y las escuelas se van impregnando de nuevos valores que han venido para quedarse.

En la segunda parte presentó los principales resultados de la evaluación del [Plan Director para la coeducación y la prevención de la violencia de género en el sistema educativo](#) (2013-2017).

Este primer plan planteaba cinco grandes retos:

- 1) ahondar en el modelo de escuela coeducativa e introducir la perspectiva de género desde un planteamiento integral;
- 2) orientar al alumnado a elegir su itinerario vital académico y profesional con libertad, sin condicionamiento de género;
- 3) integrar la perspectiva de género y abordar el fracaso escolar y garantizar que el acceso al sistema educativo sea universal;
- 4) educar para unas relaciones sexuales sanas y una convivencia basada en la diversidad sexual y en la igualdad de mujeres y hombres; y,
- 5) prevenir la violencia de género.


Durante este periodo participaron en el I Plan de Coeducación, 200 centros con proyecto específico y, entre ellos, 10 con proyectos integrales. Según los equipos directivos de los centros, el profesorado recibió formación sobre detección del sexismo y prevención de la violencia de género y, en menor medida, sobre diversidad sexual.

Eskola gehienek berdintasuneko eta genero-indarkeriaren prebentzioko gaiak sartu dituzte beren eskolako planetan edo proiektuetan, jarduera puntualak eginez edo, hala badagokio, eskolen erdietan, gutxi gorabehera, ikasgelako programazioetan sartuz. Parte hartu zuten eskolek honako ondorio hauek nabarmendu zituzten:

1. zuzendaritza-taldearen lidergoaren garrantzia;
2. Batzordeak indartzea eta Hezkidetzako arduradunak izendatzea;
3. orientazioko eta tutoretzako profesionalen inplikazioa;
4. ikasleentzako, irakasleentzako, familientzako eta hezkuntza-komunitateko beste langile batzuentzako prestakuntza-jarduerak garatzea;
5. bereziki gatazken aurrean betaurreko moreak jartzearen garrantzia;
6. hezkuntza afektibo-sexualari heltzeko zailtasunak; eta,
7. aisialdirako espazioak erabiltzearen kezka.

Eskola horiek aitortu zuten lehenengo Planean parte hartzeak eragin handia izan duela beren eskoletan; zehazki, hezkuntza-komunitatearen sentimendua areagotu dela, seme-alabekiko itxaropenak handitu direla, eskola-giroa eta gatazkei aurre egiteko modua hobetu direla eta ikastetxeren bat prestakuntza-zentro bihurtu dela.

Berriki, [II. Hezkidetzak-Plana](#) (2019-2023) onartu da. Etorkizunari begira, hizlariak ondorioztatu zuen genero-berdintasunak “norberekeriatik lankidetzak adimendunera igarotzeko aukera” ematen digula (Bacete, 2017), eta “generoak desagertzeko eta gizarte androgino ez androzentrikoa eraikitzeko” bidean gaudela (Subirats, 2018).



La mayoría de los centros han introducido los temas de igualdad y prevención de la violencia de género en sus planes o proyectos de centro, llevando a cabo actividades puntuales o, en su caso, incorporándolas en las programaciones de aula en aproximadamente la mitad de los centros. Los centros que participaron destacaron las siguientes conclusiones:

- 1) importancia del liderazgo de los equipos directivos;
- 2) potenciación de Comisiones y nombramiento de responsables de Coeducación;
- 3) implicación de profesionales de la orientación y tutoría;
- 4) desarrollo de actividades de formación dirigida al alumnado, profesorado, familias y otro personal de la comunidad educativa;
- 5) importancia de ponerse las “gafas moradas” especialmente ante los conflictos;
- 6) dificultades para abordar la educación afectivo-sexual; y,
- 7) preocupación por el uso de espacios de recreo.

Estos centros reconocieron que la participación en el primer Plan ha tenido un gran impacto en sus centros, en concreto, que se ha incrementado el sentimiento de comunidad educativa, han aumentado las expectativas hacia sus hijas e hijos, ha mejorado el clima escolar y la forma de abordar los conflictos y que algún centro se ha convertido en un centro formador.

Recientemente se ha aprobado el [II Plan de Coeducación](#) (2019-2023). Mirando al futuro la ponente concluyó que la igualdad de género “nos permite transitar del egoísmo a la cooperación inteligente” (Bacete, 2017) y que caminamos hacia la “desaparición de los géneros y la construcción de una sociedad andrógina, no androcéntrica” (Subirats, 2018).

[*Ver VIDEO](#)

“Elkarrekin” proiektua: Ikasleen artean berdintasuna lantzen

Xabier Iturbe Gabikagojeaskoa Lekeitioko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeko irakasle eta zuzendaria da. Irakaskuntzan eta hezkuntzan genero ikuspegia txertatzen esperientzia luzea dauka. Ikastetxe hau aitzindari izan da genero berdintasunaren aldeko proposamenak ezartzen. “Mejora de la práctica docente” (2013), [“Coeducar en la escuela infantil: Sexualidad, amistad y sentimientos”](#) (2015) eta Eskolatik eskolara (2016) izeneko liburuen egile da eta hezkuntza aldizkarietan hainbat artikuluren egile ere bada.

Xabier Iturbe Gabikagojeaskoak (Lekeitio HLHIko irakasle eta zuzendariak) bere hitzaldia hasi zuen “Elkarrekin” proiektuaren marko orokorra azalduaz. Proposamen pedagogiko hau ikasleen artean berdintasuna sustatzeko asmoz sortu zuten.

Proposamen hau bultzatzen duen eskola Ikas-Komunitate bat da eta beraien hezkuntza proiektutik lau helburu orokor azpimarratu zituen: 1. ikasleen kompetentzia akademikoa; 2. eskolan lan egiten duten pertsona guztien formakuntza; 3. hezkuntza komunitatearen parte hartzea erabaki hartzeetan; eta, 4. elkarbizitzan oinarritutako harremanak, zeinak, aldi berean, lau lan ildo lantzen dituen: hezkidetzeta eta sexualitatea, tutoretza eta kulturartekotasuna, afektuak eta emozioak, eta azkenik, gatuzken kudeaketa eta ebazpena.



Proyecto “Elkarrekin”: Trabajando la igualdad entre el alumnado

Xabier Iturbe Gabikagojeaskoa profesor y director del Centro de Primaria Lekeitio. Tiene una extensa experiencia en la docencia y en la inclusión de la perspectiva de género en la educación.

Su centro ha sido pionero en realizar propuestas a favor de la igualdad de género. Es autor de los libros: Mejora de la práctica docente (2013), [Coeducar en la escuela infantil. Sexualidad, amistad y sentimientos](#) (2015), “Eskolatik eskolara” (2016) y diversos artículos en revistas de educación.

Xabier Iturbe Gabikagojeaskoa (profesor y director del Centro de Primaria Lekeitio) inició su exposición mencionando como marco general el proyecto de centro que integra la idea pedagógica llamada “Elkarrekin” diseñada para trabajar la igualdad entre los alumnos y las alumnas.

El centro escolar que diseña esta propuesta se define como Comunidad de Aprendizaje y en su proyecto educativo destacó cuatro objetivos principales: 1) la competencia académica del alumnado; 2) la formación de todas las personas que trabajan en el centro; 3) la participación de la comunidad educativa en la toma de decisiones; y, 4) un espacio relacional de convivencia que integra, a su vez, cuatro líneas de trabajo: coeducación y sexualidad, tutoría e interculturalidad, afectos y emociones y, por último, la gestión y resolución de conflictos.

Oinarri teoriko gisa gizarte likidoa (Bauman, 2002), arrisku gizartea (2013) eta informazioaren gizartea bezalako kontzeptuak berrikusi zituen. Aldaketa hauen ondorioz demokratizazioa, eta elkarrizketaren eta arrazoinamenduaren erabilera handiagotu direla adierazi zuen, baita giza eskubideak eta berdintasuna gure testuinguru hurbilean bultzatu direla ere. Ordea, bere ustetan errealitateak erresistentzia adierazten du gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko bidean, eta adibide gisa ondorengoak aipatu zituen: alardea, telefono mugikorren inguruan Lea-Artibaian egindako ikerketa, mutilek neskekiko ezartzen duten kontrolaren adierazgarri gisa, edota maitasun erromantikoko rolen esleipenean sortzen diren desparekotasunak.

Hezkuntzaren ardura izan da tradizioz berdintasuna bultzatzea, eta honen adibide dira Delors informea (1996), [Heziberri 2020](#) proiektua edo adimen anitzen inguruko Gardner-en proposamena (1994). Ekarpenean hauen oinarritzen da Lekeitioko eskolako Elkarrekin programa. Programa honek barne hartzen du hezkidetzaren tratamendua irakaskuntza eginkizun guztietan, neska eta mutilen arteko aniztasunaren aitorpena, emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioaren antolaketa, eta azkenik, emakumeen ekarpenak curriculumean.

Sexu hezkuntzari lotuta azpimarratu zuen maitasunaren kontzeptualizazioa berdintasunetik bultzatzeak eta nortasun sexualaren garapen integrala bultzatzeak duen garrantzia. Azken honek barne hartzen du transexualitatea, sexismoa bultzatzen duten egoerak identifikatu eta gainditzea, erlazio sexualetarako eta aukera erotikoetarako erakarpenean oinarriak ezagutzea, eta ezabatzea genero estereotipoekin loturiko rol mugatzaileak.

Como fundamento teórico revisó conceptos importantes tales como la sociedad líquida (Bauman, 2002), la sociedad de riesgo (Beck, 2013) y el de las sociedades de la información y los relacionó con los cambios que potencian la democratización, el incremento del uso del diálogo y el razonamiento y que fomentan los derechos humanos y la igualdad en nuestro contexto. No obstante, señaló que la realidad se resiste a la igualdad entre hombres y mujeres y mencionó ejemplos como el caso del alarde, la investigación sobre el uso de los teléfonos móviles y el control que ejercen los chicos sobre las chicas en la comarca de Lea-Artibai, o la desigualdad que provoca la asignación de roles en el amor romántico.

La educación se ha preocupado tradicionalmente por el tema de la igualdad como se recoge en el informe Delors (1996), el proyecto [Heziberri 2020](#) o la propuesta de Gardner (1994) sobre las inteligencias múltiples, diversas aportaciones en las que se basa el programa Elkarrekin del centro escolar de Lekeitio. Este programa incluye el tratamiento coeducativo en todas las tareas docentes, reconocer y valorar la diversidad entre las chicas y los chicos, organizar la prevención de la violencia contra las mujeres, y finalmente, valorar las aportaciones de las mujeres al currículum.

Con respecto al tema de la educación sexual destacó la importancia de impulsar la conceptualización del amor desde la igualdad, potenciar el desarrollo integral de la personalidad sexual integrando la transexualidad, detectar y superar situaciones que provocan sexismo, conocer las bases de la atracción para las relaciones sexuales y opciones eróticas, así como eliminar roles limitadores relacionados con los estereotipos de género.

Ikasleen kontzientzia afektibo eta emozionala garatzeak eskatzen du ongizate subjektiboa bultzatzen duten aldagaien kontzientzia hartzea, trebetasun emozionalak garatzea, samurtasuna, maitasuna, sentikortasuna eta leuntasuna bezalako emozioak sozializatzea, eta baita objektu eta pertsonetikiko afektu baikorra azaltzen ikastea ere. Horretarako garrantzitsua da espazioak antolatzea eta kudeaketarako eta gatazken ebazpenerako ekintzak planifikatzea, eta elkarbizitza hobetzeko neurri zehatzak hartzea, aniztasuna artatuz kulturartekotasunetik eta eskola babes eta segurtasun gune bilakatuz.

Genero indarkeriaren prebentzioa hezkuntza eragile guztien arteko eztabaida bultzatuz eta espazio ireki batzuen laguntzaz bideratu zuten. "Ez ezetz da" lema laguntzen ditu genero indarkeriaren prebentzioari loturiko ekimen guztiak. Adierazi zuen, halaber, zeinen garrantzitsua den tratu txarrei emango zaien erantzuna adostea. Zeren ez da nahikoa bakoitzak bere iritzia izatea edota bere erabakiak hartzea.

Hainbat materialen berri eman zuen eta proposatu zuen astean 3 edo 4 saio eskaini zitezkeela ondorengoei; ikasleen arteko foroak antolatzeari, elkarbizitza behatokia antolatzeari, babes lagunak izateari, bitartekaritzarako espazioak sortzeari, iradokizunak jasotzeko kutxa sortzeari, harrera jardunaldiak antolatzeari, soziogramak, ospakizunak, talde interaktiboak eta kooperatiboak martxan jartzeari eta abar. Bereziki azpimarratu zuen talde lana, erlazionatzen eta elkarbizitzen ikasteko tresna gisa. Adierazi zuen zeinen garrantzitsua den jolas orduetako lana, eta arauak eta jolasen erabilerak, espazioak eta harremani dagozkien alderdiak hitzartzea. Azkenik, nabarmendu zuen eskolan egindako lan pedagogikoa jaso, partekatu eta publikatzeak duen garrantzia.

[*BIDEOA ikusi](#)

El desarrollo de la conciencia afectiva y emocional de los alumnos y alumnas comprende tomar conciencia de los factores que impulsan el bienestar subjetivo, desarrollar las destrezas emocionales, socializar emociones como la ternura, el amor, la sensibilidad y la delicadeza, además de aprender a mostrar afecto positivo hacia las personas y los objetos. Para ello es importante organizar espacios y planificar acciones para la gestión y la resolución de conflictos, y medidas concretas para la mejora de la convivencia atendiendo la diversidad desde la interculturalidad y convirtiendo el centro escolar en un espacio de protección y seguridad.

La prevención de la violencia de género comenzó a impulsarse mediante debates y espacios abiertos para argumentar acerca de este tema entre todos los agentes educativos. El lema de "no siempre es no" acompaña a todas las iniciativas para prevenir la violencia de género y señaló la importancia de acordar qué hacer ante los malos tratos, porque no vale con que cada uno o una tenga su propia opinión o tome sus propias decisiones.

Mencionó diversos materiales y propuso dedicar 3 o 4 sesiones a la semana a organizar foros de alumnado, organizar observatorios de convivencia, crear figuras como las de los "amigos o amigas de protección", espacios para la mediación, buzones para recoger sugerencias, jornadas de acogida, sociogramas, celebraciones, grupos interactivos, cooperativos, etc. subrayando especialmente el trabajo en grupo para aprender a relacionarse y a convivir. Apuntó la relevancia del trabajo en los recreos, e indicó su idoneidad para pactar y acordar normas y usos de juego, de espacios y de aspectos relacionales. Finalmente, destacó la importancia de recoger, compartir y publicar el trabajo pedagógico realizado en el centro escolar.

Hezkuntza mistotik hezkidetzarako bidean

Txaro Etxeberria Zubeldia Haur eta Lehen Hezkuntzako aholkularia da, eta Iñigo Navascues Arana Tolosako Herrikide eskolako Bigarren Hezkuntzako orientatzailea. Eskola herriko hiru erlijio-zentrok bat egin ondoren sortu zen. Eskolan etengabe sartu dira aldaketak eta berrikuntzak. Hezkuntza emozionala hasieratik landu dute. Horregatik, konpetentzia emozionalak modu sistematikoan eta sekuentziatuan garatzeko programa bat dute, eta programa hori ebaluazio- eta hobekuntza-prozesuan dago beti. Beste eremu garrantzitsu bat bizikidetzaren positiboa sustatzea eta gatazkek modu baketsuan eta elkarrizketan konpontzen irakastea da. Horretarako, KIDE (Kidetasunerako Dinamikak Eskolan) programa sortu dute, hezkidetzari buruzko gutzia txertatuz.



Txaro Etxeberria Zubeldiak eta Iñigo Navascues Aranak (Herrikide Eskola), beren erakusketan, hiru ikastetxeek bat egin zutenean kokatu zuten beren ibilbidearen hasiera. Proiektu komun bat sortzeko eta neska-mutilen arteko berdintasuna sustatzeko premiaren aurrean, Herrikidek gaitasunen garapenean oinarritutako hezkuntza-proiektuari ekin dio, adimen anitzekin lotzen diren pertsonen arteko trebetasunen garrantzia kontuan hartuta, zehazki adimen emozionalarekin eta gatazken kudeaketarekin.

Adimen emozionalari buruzko programa bat (KIDE - Kidetasunerako Dinamikak Eskolan) sortzen parte hartu dute, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Hezkuntza emozionala eta gatazken kudeaketa ikastetxeeko eskola-bizikidetzaren hobekuntza-arlo garrantzitsutzat jotzen dituzte.

De la educación mixta a la coeducación

Txaro Etxeberria Zubeldia es consultora de Educación Infantil y Primaria, e Iñigo Navascues Arana es orientador de Educación Secundaria de la escuela Herrikide, en Tolosa. La escuela fue creada después de la fusión de tres centros religiosos del municipio. En la escuela han ido incorporando cambios e innovaciones de forma constante. Han trabajado la educación emocional desde el comienzo. Por ello, tienen un programa para desarrollar las competencias emocionales de forma sistemática y secuenciada, la cual está siempre en proceso de evaluación y mejora. Otro ámbito importante es la promoción de la convivencia positiva y la enseñanza de la resolución pacífica y dialogada de los conflictos. Para ello han creado el programa KIDE (Kidetasunerako Dinamikak Eskolan) en que han incorporado todo lo referido a la coeducación.

Txaro Etxeberria Zubeldia e Iñigo Navascues Arana (Escuela Herrikide), en su exposición, ubicaron el inicio de su trayectoria en el momento de la fusión de los tres centros escolares que lo integran. Ante la necesidad de crear un proyecto común y de fomentar la igualdad entre chicos y chicas, Herrikide inicia su proyecto educativo basado en el desarrollo de las competencias, contemplando la relevancia de destrezas interpersonales que se vinculan a las inteligencias múltiples, en concreto la inteligencia emocional y la gestión de conflictos.

Han participado en la creación de un programa sobre inteligencia emocional (KIDE - Kidetasunerako Dinamikak Eskolan) con el apoyo de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Consideran la educación emocional y la gestión de conflictos como áreas de mejora importantes dentro de la convivencia escolar del centro.

2014tik, Euskal Hezkuntza Sistemaren [I. Hezkidetza-Planean](#) parte hartzen dute, eta Gipuzkoan itunpeko ikastetxeetatik deialdira aurkeztu zen ikastetxe bakarra da, antzeko ikastetxeekin harremanak izateko, prestakuntzan hazteko eta beste esperientzia batzuk ezagutzeko aukera eman diena.

Ikastetxean hezkidetzari buruz egin zuten azterketan, irakasleak sensibilizatzeko eta prestatzeko beharra identifikatu zuten, eta hurbileneko testuingurua planteatu zuten gogoeta-iturri gisa, hau da, ikastetxea bera. Gainera, ikastetxeko familiek planteatutako eskaerari erantzun zioten, zehazki seme-alabak berdintasunean hezteko moduari. Familiaren eta eskolaren arteko lankidetzaren ezinbestekoa dela adierazi zuten, bai batera esku hartzeko, bai elkarri prestakuntza emateko, eguneroko harremanekin zuzenean lotutako gai batzuk nabarmenduz (bizikidetzaren, hezkidetzaren, adimen emozionala, gatazken kudeaketa) eta familiekin egiten dituzten prestakuntza-jarduerak erakutsiz. Horrela sortu zen "Elkarrekin" behatokia, gai horiei lotutako edozein gai iragazteko.

